



## EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA

1/2021 expedientea. Jatorria: Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasunerako Ataleko zinegotzia.

**COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO**

Expediente 1/2021. Procedencia: Concejalía del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo.

### AURREKARIAK

1.-Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasunerako Ataleko zinegotzi andrearen 2021eko urtarrilaren 18ko idazkiaren bidez, Kontrol eta Gardentasun Batzorde honi jakinarazi zitzaion [REDACTED] kexa bat aurkeztu zuela [REDACTED] Udaltzaingoak [REDACTED] bizilagunaren inguruan egindako jarduketei buruz.

2.- [REDACTED] andreak adierazi du ez dagoela ados hainbat polizia-jarduketarekin, baina, batez ere, 2020ko uztailaren 24an egin zenarekin. Egitateak, laburbilduz, honako hauek dira: aipatutako hilaren 24an, goizaldeko hirurak inguruan, Udaltzaingoak isuna jarri zion [REDACTED] ibilgailuari, IAT indarrean ez edukitzeagatik. Etxean zegoen [REDACTED], eta isuna jasotzera jaitsi zen.

Jarraian, polizia-atestatu bat egin zuten, eta atxilotu egin zuten. Basauriko espeltean sartu zuten, errevisoraria judicial bat zegoelako indarrean. Era berean, espelteko zerbitzu medikoek lesio batzuk antzeman zizkioten espetxeratutako [REDACTED] jaunari, azterketa medikoa egitean.

Horiek horrela, [REDACTED] aurretiazko eginbideak hasi ziren [REDACTED] Epaite gian. Eginbide horiei dagokienez, Arartekoaren informazio-eskaera bat ere jaso zen (kexa: [REDACTED]).

3.- Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean aurreikusitako Kontrol eta Gardentasun Batzorde honek urtarrilaren 26an eginiko lehenengo bileran izan zuen adierazitako [REDACTED]

### ANTECEDENTES

1.- Por escrito de 18 de enero de 2021, de la Sra. Concejala del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo, se comunicó a esta Comisión de Control y Transparencia, la existencia de una queja presentada por [REDACTED], relativa a actuaciones de la Policía Local en relación con el vecino [REDACTED].

2.- La Sra. [REDACTED] manifiesta su disconformidad con varias actuaciones policiales, aunque se centra, sobre todo, en la que tuvo lugar el día 24 de julio de 2020. Los hechos, en síntesis, se refieren a que el indicado día 24, sobre las tres de la madrugada, se procedió por la policía local a imponer una multa al vehículo propiedad de [REDACTED], por no tener en vigor la ITV. [REDACTED], que se encontraba en casa, bajó a recoger la multa.

Los hechos que siguieron, dieron lugar a un atestado policial, siendo detenido el mismo e ingresado en el Centro Penitenciario de Basauri, por encontrarse en vigor una requisitoria judicial. Constan, asimismo, unas lesiones observadas por los servicios médicos del centro penitenciario al examinar al ingresado [REDACTED].

Por estos hechos, se iniciaron diligencias previas [REDACTED] en el Juzgado de Instrucción [REDACTED]. Con relación a estas diligencias, también se recibió una petición de información por parte del Ararteko, Queja [REDACTED]

3.- Esta Comisión de Control y Transparencia prevista en la ley de policía del País Vasco, tuvo conocimiento del escrito de la Sra. [REDACTED]



idazkiaren berri, eta kasuarekin loturiko aurrekari guztiak eskatzea adostu zuen.

4.- Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, Batzordeak beste bilera bat egin zuen martxoaren 3an, eta egindako jarduketa guztiak aztertu ondoren, eta ebazpen honen xedapenetan jasotzen den erabakia hartu zuen.

ya indicada, en la reunión de la Comisión del día 26 de enero pasado, acordando solicitar todos los antecedentes existentes del caso.

4.- Recibida la documentación solicitada, en una nueva reunión de la Comisión que tuvo lugar el día 3 del presente mes de marzo, se procedió al estudio de todo lo actuado, alcanzándose el acuerdo que se documenta en la parte dispositiva de esta resolución.

## OINARRIAK

1.- Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez sortu zen Euskadiko Autonomía Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Kontrol eta Gardentasun Batzorde honek bere ibilbidea lehenengo ebazpen honen bidez hasten duenez, komeni da gogoeta batzuk egitea gardentasun-printzipioaren balioari buruz, oro har, eta, bereziki, Ertzaintzaren eta Udalzaingoen jardueran izango duen proiekzioari buruz.

2.- Gardentasuna Europar Batasunaren funtzionamenduaren printzipo gidari bat da, eta horren arabera, bere erakundeen jarduera eta erabakiak hartzeko prozesuak herritarrengandik ahalik eta irekien eta hurbilen garatu behar dira, eta proiekzio argiena du Batasuneko instituzio, organo eta organismoen dokumentuak eskuratzeko herritarrek duten eskubide subjektiboan. Horrekin, erakundeen izaera demokratikoa eta herritarrak Administrazioan duen konfiantza indartzen dira, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 42. artikuluan jasotzen denez.

Estatuko legedian, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) printzipo hori onartzen eta garatzen du.

3.- Garrantzi berezia du gardentasun-printzipoak polizia-erakundeari dagokionez, opakutasun- edo iluntasun-arrisku ororen aurkako balazta eraginkorra delako, eta, horrela, herritarrek polizia-jardueran duten konfiantza indartzen

## FUNDAMENTACIÓN

1.- En la medida que esta Comisión de Control y Transparencia de la Ley de Policía del País Vasco, creada por el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, inicia su andadura con esta primera resolución, es oportuno efectuar unas reflexiones sobre el valor del principio de transparencia en general y, en particular, sobre su proyección sobre la actividad de la Ertzaintza y Policias Locales.

2.- La transparencia es un principio rector del funcionamiento de la Unión Europea, conforme al cual, la actividad de sus instituciones y los procesos de decisión deben desarrollarse del modo más abierto y cercano a la ciudadanía, encontrando su más clara proyección en el derecho subjetivo de acceso de la ciudadanía a los documentos de las instituciones, órganos y organismos de la Unión. Con ello, se refuerza el carácter democrático de las Instituciones y la confianza de la ciudadanía en la Administración, como se reconoce en el art. 42 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea.

En la legislación estatal, la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno, reconoce y desarrolla tal principio.

3.- Especial importancia tiene el principio de transparencia en relación con la institución policial, al constituir un eficaz freno a todo riesgo de opacidad u oscuridad, reforzándose, de este modo, la confianza de la ciudadanía en la actividad



delako, dauden kontrolen objektibotasunari eta neutraltasunari esker.

4.- Laburbilduz, Batzorde honen eginkizunak dira, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 17.2 artikuluaren arabera:

a.- Ertzaintzaren edo Udaltzaingoen barruan jokabideak edo praktikak aztertzea, baldin eta giza eskubideei eragiten dieten edo herritarren konfiantza kaltetzen duten kexak badaude. Ez dira kexa bakanak, baizik eta segurtasun-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularrak, udal-agintaritza eskudunak edo Arartekoak soilik Batzorde honi aurkezten dizkien jarrerak edo jokabideak.

b.- Poliziaren esku-hartze edo zaintza baten ondorioz heriotza edo lesio larriak gertatu diren kasuen azterketa. Kasu horretan, batzorde horrek ofizioz jardungo du.

c.- Jardunbide egokiei buruzko txostenak egitea edo poliziaren kode deontologikoarekin bat ez datozen jokabideak identifikatzea, eta neurri zuzentzaileak edo prebentziozkoak proposatzea.

5.- Getxoko Udaleko Herriaren Segurtasunerako Ataleko zinegotzi andreak azterzeko aurkeztu digun gaia, funtsean, 2020ko uztailaren 24an gertatutako egitateetara mugatzen da, hain zuzen ere honako hauetara: uztailaren 24an, goizaldeko hirurak inguruan, Udaltzaingoak isuna jarri zion [REDACTED] jiblgailuari, IAT indarrean ez edukitzeagatik. Egitateok direla eta, atxilotu eta espetxeen sartu zuten,

[REDACTED] Exekutoriaren ondorioz. Hala jasota dago Batzordeari bidali zaion dokumentazioan. Horiek horrela, [REDACTED] aurretiazko eginbideak hasi ziren [REDACTED] Epaite gian.

Eginbide horiei dagokienez, Arartekoaren informazio-eskaera bat ere jaso zen (kexa: [REDACTED]). Horregatik, Arartekoan izapidezten ari den kexaz gain, [REDACTED] Aurretiazko Eginbideak bideratzenean ari dira [REDACTED]

policial, gracias a la objetividad y neutralidad de los controles existentes.

4.- En síntesis, son funciones de esta Comisión, de acuerdo con el art. 17.2º de la Ley de Policía del País Vasco, las siguientes:

a.- El estudio de conductas o prácticas en el seno de la Ertzaintza o Policías Locales, sobre las que existan quejas que afecten a los derechos humanos o deterioren la confianza de la ciudadanía. No se trata de quejas aisladas, sino de actitudes o conductas que sean presentadas ante esta Comisión, exclusivamente, y esto es importante, por la persona titular del departamento del Gobierno Vasco competente en temas de seguridad, o bien por la autoridad municipal competente, o por el Ararteko.

b.- El estudio en los casos en que se haya producido fallecimiento o lesiones graves con ocasión de una intervención o custodia policial. En tal caso, esta Comisión actuará de oficio.

c.- La elaboración de informes sobre buenas prácticas o identificación de conductas no acordes con el código deontológico policial, pudiendo proponer medidas correctoras o preventivas.

5.- El caso sometido a nuestro estudio por la Sra. Concejala del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo, se ciñe, fundamentalmente, a los hechos ocurridos el día 24 de julio de 2020, relativo a la actuación de la Policía Local en la persona [REDACTED]

, con ocasión de la imposición de una multa por no tener en vigor la ITV del vehículo, y que concluyeron con su detención e ingreso en prisión en virtud de la Ejecutoria [REDACTED]

[REDACTED], según la documentación recibida.

Por este hecho, además de la queja que se tramita ante el Ararteko, se instruyen las Diligencias Previas [REDACTED]

[REDACTED].



Agintaritza judizialak gertakari horien berri izan eta ikertzen ari dela, Batzorde honen ustez, ez dago arrazoik ikerketa bat ikerketa judizialetik kanpo egiteko, Poliziaren Legearen 19.4 artikulua, jokabiderik edo praktikarik ez delako agertzen lege horren 17.2 a) artikuluaren arabera.

6.- [REDACTED] andreak [REDACTED] jaunari dagokionez beste gai batzuen inguruan planteatzen dituen gainerako gaiei dagokionez, ez dakigu zinegotzi horrek erantzun dituen. Hala ez bada, zinegotzi andreatzari gogoraraziko diogu herritarri berari erantzun behar diola, eta dagozkion azalpenak eman beharko dizkiola.

## ERABAKIA

Kontrol eta Gardentasun Batzorde honek aho batez erabaki du ez onartzea Getxoko Udaleko Herriarren Segurtasunerako Arloko zinegotzi andreatzaren idatzia, ebazpen hau jakinaraziko baitzaio.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 18an

Eta, horrela jasota geratu dadin, ZIURTAGIRI hau egiten du, Batzordeko Idazkariak, sinadura digitalean jasotzen den datan.

Estando conociendo e investigando la autoridad judicial tales hechos, no existen, en opinión de esta Comisión, razones para realizar una investigación al margen de la encuesta judicial existente, en los términos del art. 19.4º de la ley de Policía, por no aparecer conductas o prácticas en los términos del art 17.2º a) de la misma.

6.- Por lo que se refiere al resto de las cuestiones que la Sra. [REDACTED] plantea sobre otras cuestiones, también en relación con el Sr. [REDACTED], desconocemos si han sido contestadas por esa Concejalía. Si no fuese así, recordamos a la Sra Concejala su deber de responder al propio ciudadano, dándole las explicaciones oportunas.

## DECISIÓN

Esta Comisión de Control y Transparencia, decide, por unanimidad, INADMITIR el escrito de la Sra Concejala del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo, a la que se le notificará la presente resolución.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2021

Y, para que así conste se expide la presente CERTIFICACIÓN, por el Secretario de la Comisión, en la fecha indicada en la firma digital.